

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure gain hartuko ditugun funtzioak hurrengo hauek izango dira:

Lehenik eta behin, web orria sortuko dugu. Aprobetxatuz gure taldeko ingeniariaren gaitasunak, hark hartuko du webgunea sortzearen ardura, guztion aholkuak buruan izanda.



Enpresaren kontabilitatea eta errentagarritasuna, gutako baste batek hartuko du, irabaziak hazten diren neurrian, erabaki desberdinak hartzeko. Bezeroen harremani dagokienean, dendan bertan jardungo gara bezeroari arreta ematen, baita webgunearen bidez ere. Gure produktua ezagutzera emateko, sare sozialetan maiz ibiliko gara inkestak eta galderak egiten, jendeak edozer iradoki edo galde dezan; hori erakartzeko modu bat izango da.



Kudeaketa eta funtzioak gure esku egongo dira ere, bakoitzaren ikasketak eta gaitasunak aprobetxatuz.

Hasieran, piezak muntatzearen ardura guk geuk hartuko dugu, gastu handiegirik ez edukitzeko. Hala ere, eta irabaziak hazi ahala, enpresa bat kontratatuko genuke bateriaren pieza horiek muntatu ditzan.

Gure ideia patentatu beharra ikusita, beste inork erabili ez dezan gure baimenik gabe, patente prozesu batzuk egin behar izan ditugu.